


# GURUTZEEN BIDAIA - ¡VENTE DE CRUCERO!

## ELORRIOKO GURUTZEAK

Bederatzi gurutze daude gaur egun Elorrion. XVI. mendeko lanak dira guztiak eta Kurutziagakoa izan ezik, gotiko berantiarrekoa baita, Errenazimentuko estiloaren baitako faseen erakusgarri dira. Horietako batzuk, Kurutzebarri, Kurutzondo, Ganondo eta Txanberikoa, esate baterako, herrigunetik irteten diren bideetan daude, eta landa-ingurunearekiko mugak ezartzen dituzte; Santa Ana, Kurutziaga eta San Juangoa, berriz, antzinako aldirietan zeuden, baina gaur egun hirigunean txertatuta gelditu dira erabat.

Mugarri urbanistiko horiek litekeena da erreferentzia gisa erabili izana, garai batean, izurria zabalduz gero osasun zerrenda bat ezartzeko. Alabaina, debozio-irudi eliztarren euskarri izan ziren batez ere, eta haiei gomendatzen zitzaizkien bidaiariak, harresiaren esparruak ematen zuen babesetik irteten zirenean.

## LOS CRUCEROS DE ELORRIO

En Elorrio se conservan nueve cruceros. Todos ellos son obras del siglo XVI, y salvo el de Kurutziaga, que es tardogótico, reflejan distintas fases del estilo Renacentista. Algunos como los de Kurutzebarri, Kurutzondo, Ganondo y Txanberi se ubican en los caminos que salen de la villa marcando el límite con el entorno rural, mientras los de Santa Ana, Kurutziaga o San Juan, emplazados en origen en antiguos arrabales, están ya integrados en el casco urbano.

Estos hitos urbanísticos, ocasionalmente pudieron emplearse como referencias para establecer un cordón sanitario en caso de epidemia. Pero, sobre todo, fueron el soporte de piadosas imágenes devocionales a las que se encomendaban los viajeros al salir de la protección del recinto amurallado.

## BERRESKURATUTAKO ONDAREA - UN PATRIMONIO RECUPERADO

Elorrioko udala

XVIII. mendeaz geroztik agiriek ematen dute gurutzeen egoera kaskarraren berri, haien izaera kontuan hartuta eguraldi txarraren eraginpean baitaude. Zenbait deskribapenek, halaber, desagertutzat eman zuten Kurutzebarriko gurutzea, baina, 1957. urteko esku-hartze bati esker, zati bat berreskuratu ahal izan zen. Gurutze guztiak 1983. eta 1984. urteetan konpondu ziren. Azkenik, 2009. eta 2016. urteen bitartean ere zaharberritze-lan gehiago egin dira, eta, horiei esker, sendotu, garbitu eta kontserbatu egin dira gurutzeak.

Al menos desde el siglo XVIII, los documentos informan sobre el precario estado de conservación de los cruceros, expuestos por su propia naturaleza a las inclemencias del tiempo. Algunas descripciones incluso dieron por desaparecida la cruz del de Kurutzebarri, que fue parcialmente recuperada en una intervención en 1957. Sobre todos ellos se actuó en 1983 y 1984. Finalmente han sido objeto de una nueva restauración entre 2009 y 2016, procediéndose a su consolidación, limpieza y conservación.

## MULTZO PAREGABEA - UN CONJUNTO SIN IGUAL

Elorrioko gurutze multzoa Euskal Herriko ugariena da gaur egun. Euskal Autonomia Erkidegoko inbentarioan bilduta dauden gurutzeen ehuneko hamar osatzen du multzoak. Bretainian dauden zenbait multzo bezain monumentalak ez badira ere, ezta galiziar gurutze ospetsuak bezain ugariak ere, horietako gehienak baino zaharragoak dira. Zenbaitek, besteak beste, Kurutziagakoak, Santa Anakoak edo Iguriakoak, kalitatea bikaina dute, eta, sailaren jarraitasunari esker, multzo bikaina osatzen dute, bai eta XVI. mendeko eskulturaren bilakaera ezagutzeko ibilbide interesgarria ere.

La serie de cruceros de Elorrio es la más numerosa conservada en el País Vasco. Representan el diez por ciento del total de los inventariados en la comunidad autónoma. Y aunque no son tan monumentales como varios de los existentes en Bretaña, ni tan numerosos como los afamados cruceros gallegos, superan a la mayoría de ellos en antigüedad. Algunos, como los de Kurutziaga, Santa Ana o Iguria, poseen además una calidad sobresaliente y gracias a la continuidad de la serie todos ellos forman un conjunto excepcional que nos permite realizar un interesante recorrido para conocer la evolución de la escultura del siglo XVI.

### KURUTZIAGAKO GURUTZEA - CRUCERO DE KURUTZIAGA



Susoko aldirian kokatua, mahatsondoz apaindutako ardatz baten gainean jasotzen da gurutze hau, eta mahatsondo horien artean hegaztiak eta munstroak tartekatzen dira, ongiaren eta gaizkiaren arteko borrokaren erakusgarri bikaina. 1522. urtekoa da, danborraren oinarriko idazkunean adierazten denaren arabera: *Esta obra ma[n]do hazer Ju[a]n[e]s de Elguetaquesancta gl[or]ia aya. Hizo el año de milldXXII*. Haren gainean hainbat santu jagole agertzen dira, horma-hobietan sartuta: San Pedro, San Andres, San Joan Bataiatzailea, Santa Marina, Santa Katalina Alexandriakoa eta Santiago erromesa.

Gurutzearen aurrealdean, Kristo Gurutziltzatua ikusten da, hilzorian, buruan arantza-koroa duela eta gona motz batez jantzia. Atzealdean, Ama Birjinak Haurtxoa du aldakan eutsia, eta samurtasunez igurtzen dio oinatxoa.

Emplazada en el arrabal de Suso, esta cruz se apoya sobre un fuste decorado con vides entre las que se intercalan aves y monstruos, símbolo de la lucha entre el bien y el mal. Data de 1522, según la inscripción de la base del tambor: *Esta obra ma[n]do hazer Ju[a]n[e]s de Elgueta que sancta gl[or]ia aya. Hizo el año de milldXXII*. Sobre ella aparecen varios santos intercesores dentro de hornacinas: San Pedro, San Andrés, San Juan Bautista, Santa Marina, Santa Catalina de Alejandría y Santiago peregrino.

En el frente de la cruz vemos un Cristo Crucificado, agonizante, tocado con gruesa corona de espinas y vestido con un corto faldellín. Al dorso, la Virgen María sostiene al Niño en su cadera, acariciando su pie con ternura.

### SANTA ANAKO GURUTZEA - CRUCERO DE SANTA ANA



Izen bereko komentuaren parean kokatua, euskarri ildoxkatua du –behin baino gehiagotan berritua–, bai eta danbor biribil ikusgarria ere, lau ebanjelariak irudikatzen dituena (San Lukas, San Joan, San Mateo eta San Markos), latindar elizaren aitekin batera (San Jeronimo, San Gregorio Handia, San Agustin eta San Anbrosio).

Danborraren azpiko idazkuna (…*obra hizo Juan Miguel de Ossa, año de*…) osatu gabe dago; beraz, ez dugu zehazki lanaren data ezagutzen, nahiz eta, irudien estilo adierazkor eta dinamikoaren arabera, 1550 ingurukoa bide den.

Gainaldeko Gurutziltzatuak Kurutziagakoak baino anatomia garatuagoa du, eta ez da hura bezain zurruna; atzealdean, berriz, Mariaren irudi dramatikoa dago, Jesusen hilotzari eusten.

Ubicada frente al convento del mismo nombre, cuenta con un soporte estriado, renovado varias veces y un espléndido tambor circular en el que se representan a los cuatro evangelistas (San Lucas, San Juan, San Mateo y San Marcos) acompañados por los padres de la iglesia latina (San Jerónimo, San Gregorio Magno, San Agustín y San Ambrosio).

La inscripción que figura bajo el tambor (…*obra hizo Juan Miguel de Ossa, año de*…) está incompleta, por lo que ignoramos su fecha, aunque el estilo expresivo y dinámico de las tallas la sitúa hacia 1550.

El Crucificado del anverso luce una anatomía más desarrollada y menos rígida que el de Kurutziaga, mientras por el reverso una dramática figura de María sostiene el cadáver de Jesús.

### SANTA ELENAKO GURUTZEA - CRUCERO DE SANTA ELENA



Hilerriaren atzealdean dago Santa Elenako gurutzea. Tetramorfosarekin apaindutako kapitel batean amaitzen da zutabea, hau da, lau ebanjelarien alegoriekin: San Joanen arranoa, San Mateoren aingerua, San Lukasen zezena eta San Markosen lehoia; oihalezko zerrenda batzuetan ageriko ziren horien izenak. Aingeruaren dinamismoa nabarmentzen da guztietan.

Gurutziltzatuak Santa Anakoa ekartzen du gogora, jarrerari erreparatuz gero, baina Ganondokoaren antzeko zapi bat du lotuta. 1560. urte inguruko lana da.

Tras el cementerio encontramos la cruz de Santa Elena. Su columna remata en un capitel decorado con el Tetramorfos, alegorías de los cuatro evangelistas: el águila de San Juan, el ángel de San Mateo, el toro de San Lucas y el león de San Marcos, con unas bandas de tela donde mostrarían sus nombres. Destaca el dinamismo de la figura del ángel.

El Crucificado recuerda por su postura al de Santa Ana, pero incorpora un paño anudado de forma similar al de Ganondo. Será obra de hacia 1560.

### KURUTZEBARRIKO GURUTZEA - CRUCERO DE KURUTZEBARRI



San Agustingo elizaraino eramaten duen galtzadaren alboan dago. Gurutzea oso hondatuta dago: Gurutziltzatuak zein Pietateak burua eta gorputz adarren puskak falta dituzte, baina Pietatearen oinean aingeru irudi ederra ikus daiteke oraindik ere.

Santa Anakoaren antzeko estiloa du, baina honako honek euskarri monumentala du, eta apaingarri gisa zintzilik dauden oihalak, kutxa maskordunak eta aingerutxo hegodunen buruak lehen Errenazimentuko osagaiak dira guztiak, hau da, 1550. urte ingurukoak.

Se localiza junto a la calzada que lleva hasta la iglesia de San Agustín. La cruz se encuentra muy deteriorada: tanto el Crucificado como la Piedad han perdido las cabezas y parte de sus extremidades, pero al pie de esta conserva un bello angelote.

Su estilo es muy similar al de Santa Ana, aunque posee un soporte monumental, decorado con paños colgantes, hornacinas aveneradas y cabezas de angelitos alados, elementos propios del primer Renacimiento, de hacia 1550.

### KURUTZONDOKO GURUTZEA - CRUCERO DE KURUTZONDO



Herrigunetik Berrizerako irteeraren alboan dago, eta gaur egun irudirik ez duen gurutze bakarra da. Fustearen soiltasunak joniar kapitel eder bat dakar ondoren, kiribilean dauden bolutez eta alde banatara balaustradun profileko kojinetez apaindua; horiek, aldi berean, akanto hostoz bilduta daude. Horren aldean, korapilo kubikoak ebanjelarien behe-erliebe zakarrak erakusten ditu, idazmahaien aurrean eserita eta dagozkien irudikapen sinbolikoez lagunduta. 1570. urte ingurukoa bide da.

Se halla junto a la salida de la villa hacia Berriz y es el único que en la actualidad remata en una cruz desprovista de imágenes. La simplicidad del fuste da paso a un hermoso capitel jónico decorado con volutas en espiral y sendos cojinetes de perfil abalaustrado, cubiertos por hojas de acanto. En contraste, el nudo cúbico muestra rudos bajorrelieves de los evangelistas sentados ante pupitres y acompañados de sus representaciones simbólicas. Se realizaría en torno a 1570.

### GANONDOKO GURUTZEA - CRUCERO DE GANONDO



Fuste leuneko gurutze soila da, eta Argiñetako baselizara eramaten duen bidearen alboan dago kokatua. Kristoren irudia jatorrizkoaren kopia da, 1984an egindako zaharberritze lanetan egindakoa. Ezkerraldera mugituta dauka aldaka, eta bertan korapilatzen da, begizta handi batez, araztasun zapia. Kapitel baten gainean dago irudia, eta kapiteleko lau aldeak masail mardul eta hego laburreko aingeruen buru ederrez daude apainduta; gai hori ohikoa da lehen Errenazimentuan. 1540. eta 1560. urteen bitartekoa izan liteke.

Junto al camino que lleva a la ermita de Argiñeta, se levanta esta sencilla cruz de fuste liso. La imagen del Cristo es una réplica de la original realizada durante una restauración en 1984. Desplaza su cadera hacia el lado izquierdo, donde se anuda el paño de pureza en una voluminosa lazada. Posa sobre un capitel ornamentado en sus cuatro caras con preciosas cabezas de angelotes de rostros mofletudos y cortas alas, tema habitual en el primer Renacimiento. Puede datarse entre 1540 y 1560.


**TURiSMO BULEGOA**

Oficina de Turismo

Berrio-Otxoa 15 • 946 820 164

info@elorrioturismo.eus • **www.elorrioturismo.eus**



Testuak/Textos: JESÚS MUÑIZ PETRALANDA • Argazkiak/Fotos: SANTI YANIZ ARAMENDIA


### TXANBERIKO GURUTZEA - CRUCERO DE TXANBERI



Elgetara daraman errepidearen ezkerrara ikus daiteke. XX. mendearen hasierarako galdua zuen danbor kubiko ia osoa, Kurutzondoko gurutzekoaren oso antzekoa, eta, atzealdean, Haurra zaintzen duen Ama Birjinaren irudia ere oso kaltetuta dago. Beste gurutze batzuetan gertatu bezala, Gurutziltzatuak aurreratua du eskuineko belauna eta burua ere alde horretarantz makurtzen du, neke keinua adieraziz. Oihala begizta ikusgarri batekin biltzen du, ezkerreko aldakan. 1570. urtearen ingurukoa da.

Podemos contemplarlo a la izquierda de la carretera que conduce a Elgeta. Para comienzos del siglo XX ya había perdido buena parte de su tambor cúbico, similar al de la cruz de Kurutzondo, estando también muy dañada la imagen de la Virgen que sostiene al Niño en el reverso. Como en otras cruces el Crucificado, adelanta la rodilla derecha e inclina la cabeza hacia ese lado, mostrando una expresión fatigada. Recoge su paño en un vistoso lazo sobre la cadera izquierda. Puede fecharse hacia 1570.

### IGURIAKO GURUTZEA - CRUCERO DE IGURIA



Kanpazarko gainera eramaten duen saihesbidearekin bat egiten duen lotunetik hurbil dago. Besoetan tamaina handiko bolutak daude erantsita, eta danbor hexagonal bat du, liburuak, lumak edo filakteriak dituzten lau ebanjelarien irudiekin; horien alboan bi irudi daude, San Paulorena, ezpata handi batekin, eta San Pedrorena, oso hondatua eta itxuraz giltza handi bat daramana.

Gurutziltzatua anatomia ahaltsuko irudia da, eta toles malguko oihal bat du jantzita; keinu abaildua du, eta horren alboan, Jesusen irudi kementsua ageri da, Ama Birjinak adeitasunez heldua. 1550-1560 bitartekoa dela esan liteke.

Se sitúa próximo al enlace con la circunvalación que lleva al alto de Kanpazar. Se adosan a sus brazos voluminosas volutas y cuenta con un tambor hexagonal donde se ubican las imágenes de los cuatro evangelistas que portan libros, plumas o filacterias junto a las de San Pablo, con una gran espada, y la de San Pedro, muy dañada, que parece sostener una gran llave.

El Crucificado es una figura de potente anatomía que viste un paño de plegado bastante flexible y muestra un gesto abatido en contraste con la vigorosa figura de Jesús sostenida afectuosamente por la Virgen al dorso. Puede fecharse hacia 1550-1560.

### SAN JOANGO GURUTZEA - CRUCERO DE SAN JUAN



San Joan edo Saldosin aldirian jarri zen gurutze hau. Fuste leuna du, toskanar kapitel soil batek azkendua.

Gurutziltzatuaren anatomia garatua, besagainen tortsioa, eskuen tamaina gehiegizkoa edota araztasun zapiaren lodiera Erromanismoaren berezko ezaugarriak dira, hau da, Errenazimentuaren bigarren aldikoak. Estilo berekoak dira atzealdeko irudiak ere, kanon laburreko Ama Birjina eta Jesus Haurtxoa oso sendoa eta ile kizkurduna. 1560-1570 ingurukoa da multzo osoa.

Esta cruz fue instalada en el arrabal de San Juan o Saldosin. Tiene un fuste liso rematado en un sobrio capitel toscano.

La desarrollada anatomía del Crucificado, la torsión de sus hombros, el desmesurado tamaño de sus manos o el grosor de su paño de pureza son rasgos propios del Romanismo, la segunda fase del Renacimiento. Al mismo estilo corresponden las figuras del reverso, una Virgen de corto canon y el Niño Jesús muy robusto y de cabello crespo, datando todo hacia 1560-1570.